



2013ko Urtarrila

**[KRISIAREN ERAGINA
HAURRENGAN: EAEKO
ERREALITATEA]**

Gogoeta kuantitatiboa



Edukia

Sarrera.....	3
Ohar metodologikoak	5
Ongizate materiala: pobrezia, gabezia, etxebizitza, lana eta diru-sarrerren bermea	6
Pobrezia:	6
Gabezia:	15
Etxebizitza:	19
Lana eta diru-sarrerren bermea:	22
Ongizate materialaren pobreziatik haratagoko beste dimentsio batzuk: hezkuntza, osasuna, aisia eta parte-hartzea	27
Hezkuntza:	27
Osasuna:	31
Aisia eta parte-hartzea:	33
Bibliografia	36
Eranskina. <i>Krisiak haurrengan izandako eraginaren jarraipenaren adierazleen zerrenda: EAEko iturriak eta datuak</i>	40
Grafikoen eta taulen aurkibidea	49
Oin-oharrak.....	51



Sarrera

2007an hasitako dezelerazio ekonomikoaren ondorioak 2009tik aurrera hasi ziren argiago antzematen eta 2012an jarraitzen dute, Europar Batasuneko herrialdeetako ekonomian eragin handia izanik. Iraupen luzeko eta nazioarteko irismeneko krisiaz ari gara eta horren ondorioak ez dira ekonomikoak soilik -ekonomia jardueraren beherapena, inbertsioen eta kontsumoaren gainbehera, enpleguaren beherakada...-, gizarte eremuan ere eragina dute eta gizarte ongizatea eta kohesioa arriskuan jartzen dituzte.

Krisiak herritarren bizi baldintzetan eta pobrezia tasetan eragina dauka, baina haren ondorioak testuinguruan kokatzeko garrantzitsua da faktore ezberdinek —hala nola, lan-merkatuaren ezaugarriak eta babeserako sistemak definitzen dituzten politika publiko eta sozialak— duten eragina kontuan hartzea. Era berean, kontuan hartu beharra dago krisiak ez duela eragin bera izan lurralde guztietan; krisiaren aurretik izandako jatorrizko egoerek eta gobernuak ematen ari diren erantzun ezberdinek herritarrak krisiaren eraginetatik babesteko modu ezberdinak eragin dituzte.

Eta, nolana ere, krisiaren eragina ez da berdina izan herritar guztientzat. Nahiko agerikoa da ondorio oso larriak eragiten dituela bereziki zaurkorrak diren herritar talde horien ongizatean eta bizi-kalitatean, eta talde horien artean haurrak daude. Haurren taldea pobrezia eta gizarte bazterketa pairatzeko arrisku gehien duenetako bat da, haren mendekotasun ekonomikoa, soziala, parte-hartzailea, legala eta politikoa dela-eta.

Unicefek argitaratutako azken ikerketako batek adierazten duenez *“haurrak krisiaren azken erantzuleak dira eta, hala ere, haren ondorioak beste gizarte taldeek bezain beste edo gehiago pairatzen ari dira. Halaber, haienganako eragina ez da horren agerikoa izaten ari, krisiari eta haren ondorioei aurre egiteko ahalmen (banakakoa eta taldekoa) gutxien dutenak diren arren”*¹. Datu batekin adieraztearren, krisiaren erantzuleak ez diren arren, une honetan EAEn jaiotzen den haur bakoitzari 3.263,64 euroko zor publikoa dagokio².

Uneko egoeran, aurkezten dugunaren moduko lanak krisiak haur eta nerabeengan izaten ari den eragina aditzera ematen saiatzen dira, baita, epe ertain eta luzean, gastu publikoa murrizteko politikek eta alor ezberdinetako doikuntza neurriek izan ditzaketen ondorioen inguruan hausnartzen ere, gazteenen etorkizuneko aukerak zehaztuz.

“Ez dago haurraren babesa eta garapena baino lehentasun handiagoko arrazoirik, haren mende baitaude biziraupena, nazio guztien eta giza zibilizazioaren egonkortasuna eta garapena”.

Haurren aldeko Munduko Goi-bileraren Ekintza Plana. 1990

Gabezia materialen ondorioz, haurrak etorkizuneko desabantaila eta zaurkortasun egoeran daude, euren gara hezkuntza, gizarte eta laneko garapenean eragina izan dezakeena. Horregatik, ezinbestekoa da haurrak kontuan hartzea gure gizarteak pairatzen dituen erronken aurrean erabakiak hartzerakoan, ez soilik euren garapen eta ongizatearengatik, baita gizarte guztiarenarengatik ere, etorkizuneko kostea garestia izan baitaiteke (herritarren eskumen maila murriztea, produktibitate gutxiago, langabezia-tasa handiagoak, babeserako sistemaren koste handiak, hezkuntza eta osasun sistema urritzea, etab.)



Baina, gainera, gogoratu beharra dago gobernuak haurren goi-mailako interesa zaintzera behartzen dituen araudia dagoela. [Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena](#)³, 1989an onartua, historian berrespen gehien izan duen eta juridikoki loteslea den nazioarteko ituna da, munduko herrialde guztiek -Espainia barne- onartu baitute, hiruk izan ezik: Somaliak, Estatu Batuek eta Hegoaldeko Sudanek. Hitzarmenak 18 urtetik beherako haur guztien eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil eta politikoak onartzen ditu eta hura sinatu duten estatuak horiei eraginkortasuna emateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte.

Hitzarmen horren 27. artikulua haurrek euren garapen fisiko, mental, espiritual, moral eta sozialerako egokia den bizi-maila izateko duten eskubidea onartzen du eta gurasoei ezartzen die hura eskaintzeko lehentasunezko erantzukizuna. Hala eta guztiz ere, Estatuaren betebehartzat jotzen du *“neurri egokiak hartzea gurasoei eta haurraren arduradunak diren beste pertsonen eskubide hori eraginkor bihurtzen laguntzeko eta, beharrezkoa balitz, laguntza materiala eta babeserako programak eskaintzea, bereziki elikadurari, jantziei eta etxebizitzari dagokionez”*.

Indarrean dagoen araudiak gobernuak haurren goi-mailako interesa babestera behartzen ditu.

EAEn, *haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak*, 3/2009 Legeak aldatutakoak, euskal errealitatean biltzen eta kokatzen ditu Hitzarmenaren izpiritua eta eskubideak. Gainera, horiekiko konpromisoa hainbat plangintza tresnatan islatzen da, besteak beste, euren egunerokotasunagatik *EAEn familiei laguntzeko erakunde arteko III. plana*⁴, *Haurren I. Plana* - oraindik ere burutzen ari da- eta *Gizarteratzeko III. Euskal Plana 2011-2016. Gizarteratze Aktiboko Plana*⁵aipa genitzake.

Lan honekin uneko erabakiek talde horrengan etorkizunean izan dezaketen eragina jasotzen duen errealitatea aztertu nahi dugu. Zehazki, eskura genituen datu estatistikoaren artean EAEko haur eta nerabeen ongizate egoeraren berri emateko garrantzitsuentzat jo diren bidez deskribatzen da egoera. Datu horiek, aldi berean, denboran zehar jarraipen bat egiteko aukera eskaintzen duen adierazle-sistema eratzen dute, krisiak euren uneko egoeran eta etorkizunekoan duen eragina neurtu eta ikusteko.

Ohar metodologikoak

Txosten hau burutzeko azterketa bibliografikoa eta bigarren mailako estatistika-iturrien kontsulta sakona egin dira, eranskinean jasota geratu direnak.

Kontsultatutako materialak adierazten duen erreferentzia esparrutik abiatuta **adierazle-sistema** bat eratu da eta bertako datuek informazio erabilgarria eskaintzen dute krisiak EAEko haurren izandako eragin ezberdinak ezagutzera emateko eta ondorioen inguruko gogoeta sustatzeko. Horiek guztiak txostenean azaldu eta komentatu dira.

58 adierazle multzoa da, eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik, dimentsio ezberdinak kontuan hartzen dituena: hezkuntza, osasuna, etxebizitza, familia, aisia, etab.

Adierazle multzoa bi ardatz nagusiren inguruan taldekatu da:

► **ONGIZATE MATERIALA**, *pobrezia, gabezia, etxebizitza eta enplegu eta gizarte prestazioekin loturiko adierazleak barne hartzen dituena.*

► Ongizatearekin loturiko **BESTE DIMENTSIO BATZUK**, *ongizate materialetik haratagokoak, hezkuntza, osasuna, aisia eta parte-hartzearekin loturiko adierazleak barne hartzen dituena.*

Adierazleen hautaketa bideratzeko eta **egoera** denboran zehar **monitorizatzeko** sistema erabilgarria eratzeko, honako ezaugarriak dituzten datuak lehenetsi dira:

- **Aldizkakoak izatea:** denboran nolabaiteko jarraitutasuna bermatzen duten datuak eta, beraz, euren artean pareka daitezkeen datu-serieak eskaintzen dituztenak.
- **Azterlanaren helburura mugatzea:** azterlanak helburu duen taldeari, hau da, 0 eta 17 urte bitarteko herritarrei, soilik dagozkion datuak, *haurrak eta nerabeak zaindu eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legeak ezarritakoa aintzat hartuta.*
- **Parekatzeko aukera izatea:** beste lurralde eremuetakoekin (estatu eta Europa mailan) pareka daitezkeen datuak, informazioa oso antzekoa dela bermatuta, eta EAEko informazioa testuinguruan ezartzeko aukera eskaintzen dutenak.
- **Azken eguneratzea duela gutxikoa izatea:** azken eguneratzea denboran nahiko gertukoa duten estatistika-iturrietatik hartutako datuak eta 2007ko krisiaren eragina islatzeko aukera eskaintzen dutenak.

Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago une honetan krisiaren gizarte eragina jarraitzeko eskura ditugun iturriek hainbat **muga** dituztela datuen eguneratzeari dagokionez -estatistika eragiketa garrantzitsuenen maiztasunak ez du beti aukera uzten duela gutxiko datuak izateko- eta beste lurralde esparruekin parekatzeko ahalmenari dagokionez. Bestalde, estatistika-datuak eskuratzeko zailtasun nagusienetako bat adinaren araberrako datuen banaketa nahikoa ez izatea da eta, horregatik, hainbatetan, datuak proposatutako definizioarekin bat ez datozen adin-tarteetan multzokatuta eskainiko dira.

Ongizate materiala: pobrezia, gabezia, etxebizitza, lana eta diru-sarreraren bermea

Pertsona orok gutxieneko baliabide batzuk behar ditu bizitza duina izateko eta horregatik ongizate materialaren adierazleak garrantzitsuak dira.

Pobrezia:


Pobrezia neurtzeko moduen arabera pobrezia-adierazle ezberdinak daude⁶, baina gehien bat familian eskura dauden baliabide ekonomikoak hartzen dira erreferentzia gisa eta pobretzat jotzen da herrialdeko familien batez besteko diru-sarrera eskuragarriaren (aldatu egiten da herrialde batetik bestera eta denboran zehar) ehuneko jakin batetik beherako diru-sarrera eskuragarria (familiaren tamaina eta osaeraren arabera egokituta) duten familietan bizi den pertsona.

Krisiaren eragin ikusgarrietako bat pobreziaren igoera da. Pobrezia-adierazle ezberdinek azaltzen dute ohiko betebeharrak eta gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez izateari loturiko estatusun egoerak nabarmenki igo direla azken lau urteetan.

Krisiak eragin nabarmena dauka pobreziaren hazkundera eta haurren taldea eragina gehien pairatzen ari den taldeetako bat da.

Beste lurralde eremuetako datuekin zuzenean parekatzeko aukera eskaintzen duten adierazleak azaltzen dutenez, EAEko herritarren % 15,4 pobrezia-atalasetik (erlatiboa) behera bizi da, batez bestearen % 60tik beherako diru-sarrerak dituzten familietan, eta % 3,5 pobrezia larriko familietan bizi da, batez bestearen % 40ko atalasetik behera.

1. GRAFIKOA. Pobrezia erlatiboko arriskuan eta pobrezia larri/altuko arriskuan dauden herritarren % (Eurostat metodoa). EAEko bilakaera 1986-2012 eta estatu eta Europa mailako parekatzea 2012an.




Iturria: *Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila*. Eusko Jaurlaritzak.
Oharra: Espainia eta Europarako azken datuak 2010/2012 tartekoak dira.

Nolanahi ere, ekonomia-krisiaren eragina ez da homoginoa izaten ari herritarren artean, bereziki zaurkorrak diren gizarte taldeetan garrantzi gehiago baita. Horien artean, **haurren taldea pobrezia pairatzeko arrisku gehien dutenetako bat da.**

EAEen pobrezia larriko egoeretarako ezarritako atalasetik (batez bestekoaren % 40) beherako diru-sarrerak dituzten familietan bizi diren 15 urtetik beherakoen proportzioa % 3,5etik % 6,2ra pasa da 2008tik 2012ra. EAEen pairatutako hazkundera Espainian tarte berean erregistratutakoa baino txikiagoa bada ere, kontuan hartu beharra dago ia 3 portzentaje-puntuiko igoera gertatu dela.

Pobrezia erlatiboko tasak (batez bestekoaren % 60ko atalasea kontuan hartzen duena) estatuko batez bestekotik dezente beherago dagoen balioa dauka eta ez du erakutsi okerrerantz doanik, baina 15 urtetik beherako herritarren %16,1 eragiten dio une honetan.

2. GRAFIKOA. Pobrezia larri/altuko arriskuan eta pobrezia erlatiboko arriskuan dauden haurren (15 urtetik beherakoak) % (Eurostat metodoa). EAEko eta Espainiako bilakaera 2008-2012



Iturria: EAEko datuak *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestatik* hartu dira. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritzak. Espainiako datuak *Bizi-baldintzen Inkestatik* hartu dira. EIN.

3. ADIERAZLEARI buruzko oharra: Espainiarako eskura dauden azken datuak 2010ekoak dira. Espainiako datuek 28 urtetik beherako adingabeei buruzkoak dira.

4. ADIERAZLEARI buruzko oharra: Espainiarako eskura dauden azken datuak 2012ko behin-behineko datuak dira eta 16 urtetik beherako adingabeen adin-tartea dute hizpide.


Europa 2020 Estrategiaren esparruan adierazle bat hartu da (ARPE)⁷ pobrezia- eta gizarte bazterkeria-arriskua neurtzeko dimentsio anitzeko ikuspuntu batetik, pobrezia-arriskuko egoerak kontuan hartzeaz gain, lan intentsitate baxuko egoerak eta oinarrizko ondasun edo zerbitzu batzuk eskuratzeko gabetzea ere aintzat hartzen dituena. Tasa hori EAEen % 19,9koa da, hau da, 2008an adierazle berak jasotakoa baino bi puntu gehiagoko ehunekoa.

Hala ere, aipatzekoa da euskal tasa Europar Batasuneko 27en batez bestetik (%23,4) behera dagoela eta Espainiako batez bestetik (%27) tarte nahiko handi batera.

Zehazki, Espainiako batez bestekoak 4,1 puntu egin du gora azken urteetan eta EAEkoa baino 7 puntu handiagoa da.

EAEko daturik ez dagoen arren, aipatzekoa da Espainian AROPE tasa 16 urtetik beherakoentzat 2012an % 29,7koa dela⁸, hau da, herritar guztientzako batez bestekoa baino 2,7 puntu gehiagokoa.

3. GRAFIKOA. Pobrezia- eta bazterkeria-arriskuan dauden herritarren % (ARPE). EAE, Espainia eta Europako bilakaera 2008-2012 (5. ADIERAZLEA)



Iturria: EAEko datuak *Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestatik* hartu dira. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Espainiako eta Europako datuak *Bizi-baldintzen Inkestatik* hartu dira. EIN eta EUROSTAT
Oharra: Europarako eskura dauden azken datuak 2010/2011 tartekoak dira.

EAEko pobrezia-tasak Espainiako eta Europako batez bestekoetatik behera kokatzen dira.

Laburbilduz, orain arte aztertutako bost adierazleetan, EAEko tasak Espainiakoarena baino panorama ez hain zorrotza islatzen du eta Europako batez bestea baino zertxobait beherako ere badago -izan ere, Europako 4 herrialdek baino ez dituzte EAEkoak baino zifra baxuagoak aipatutako pobrezia-adierazleetan: Luxenburgo, Austria, Herbehereak eta Finlandia.

1. TAULA Desberdintasun ratioa (S80/S20) EAE, Espainia eta Europako bilakaera 2008-2012 (6. ADIERAZLEA)

Lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua	Aurreko datuen seriea
	2010/2012	2008
EAE	3,7	3,6
Espainia	6,8	5,4
EB 27	5,3	5

Iturria: EAEko datuak *Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestatik* hartu dira. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Espainiako eta Europako datuak *Bizi-baldintzen Inkestatik* hartu dira. EIN eta EUROSTAT

Oharra: Europarako eskura dauden azken datuak 2010/2011 tartekoak dira.

Gainera, esan dezakegu EAE Europako diru-sarrera desberdintasun⁹ gutxien duen lurraldeetako bat dela, izan ere, herritar aberatsenen % 20aren diru-sarreraren eta gizarte-egoera ahulenean daudenen % 20aren diru-sarreraren arteko ratioa 3,7koa da, Espainiako 6,8aren eta Europako 5,3aren aurrean (Eslovenian, Txekiar Errepublikan eta Suedian bakarrik dituzte indize txikiagoak).


*Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestak*¹⁰, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietarako Sailak garatutakoak, errealitate horretan zertxobait gehiago mugatzeko eta sakontzeko aukera eskaintzen duten beste pobrezia adierazleerako datuak eskaintzen ditu.

Alde batetik, % 7,3ko ehunekoa ematen dio une honetan mantentze-pobreziako¹¹ arriskuan dagoen EAEko herritar kopuruari. Pobrezia-mota hori oinarrizko premiei aurre egiteko familien

diru-sarrerara faltarekin lotuta dago. Gainera, herritarren % 19,9k ongizate-gabeziako¹² arriskua dauka, EAE moduko gizarte batean espero den gutxieneko ongizate-maila mantentzeko eskatzen diren gastu-beharrei aurre egiteko diru-sarrerara nahikorik ez izatearekin lotzen dena.

Bi tasa horiek hazkunde nabarmena izan dute 2008az geroztik, 1,6 eta 3,5 puntukoa, hurrenez hurren, baina ez dituzte lortu 2004a baino lehenagoko urteetako kotak.

4. GRAFIKOA. Mantentze-pobreziako eta ongizate gabeziako arriskuan dauden herritarren %. EAEko bilakaera 1986-2012



Iturria: *Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012*. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritzia.
Oharra: EPDS 2012an doitu gabeko datuak 1986-2000 tarterako birkalkulatu dira, 2004tik aurrera EPDS metodoan pobrezia-atalaseak eta ongizate gabezia kalkulatzeko moduan gaineratutako aldaketetara homologatze aldera.

Azpimarratzekoa da pobrezia-tasak nabarmenki altuagoak direla emakumeen artean gizonen artean baino. Emakumeek % 12,6ko mantentze-pobreziako arrisku-tasa dute, gizonek, berriz, % 5,8koa¹³.

Tasa horiek haurren artean dituzten balioak aztertzen baditugu, arestian aipatutako joera errepikatzen dela ikusiko dugu: pobrezia eragin handiagoa dauka herritar gazteenen artean. Mantentze-pobreziako arrisku-tasa 15 urtetik beherako herritarren artean % 11,7koa da EAEn, herritar guztiei dagokien tasa baino 4 puntu gehiago.

15 urtetik beherako 35.025 haur (% 11,7) euren oinarrizko premiak ase ezin izateko arriskuan dauden familietan bizi dira. Krisia hasi zenetik, arriskuan dauden adingabeen kopuruak % 2,6 egin du gora.

Euren kideen oinarrizko premiak ase ezin izateko arriskuan dauden familietan bizi diren haurren ehuneko horrek 2,6 egin du gora krisia hasi zenetik. Hazkunde hori herritar guztiek jasandakoa baino handiagoa da, beraz, krisiak haurren pobrezian izan duen eragina beste taldeek pairatu dutena baino handiagoa izan dela ikusten da. Balio absolutuetan arriskuan dauden 35.025 haurrez¹⁴ ari gara EAEko mantentze-pobreziako arriskuan dauden pertsona guztien % 22,7¹⁵ osatzen dutelarik.


15 urte baino gutxiagoko 66.458 haur (% 22,2) ongizateko gutxieneko maila batzuk mantendu ezin izateko arriskuan daude.

Gainera, 15 urteko euskal adingabeen % 22,2 inguru, oinarrizko premiak asetzetik haratago, euskal gizartean espero diren ongizate eta erosotasuneko gutxieneko mailak mantentzeko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko diru-sarrerara nahikorik gabe bizi da. Guztira 66.458 adingabe¹⁶ daude arriskuan, EAEn ongizate gabeziagatiko arriskuaren eragina duten pertsona guztien 15,6%¹⁷.

Tasa hori ere herritar guztientzat erregistratutakoa baino zertxobait altuagoa da, baina ez du hazkunde nabarmenik izan azken urteetan.

Aipatu dezakegu, sexuaren eta adinaren arabera banandutako daturik ez dugun arren, herritar guztien zifrak erreferentziatzat hartuta, neskenengan pobrezia arrisku handiagoa dagoela pentsa dezakegu.

5. GRAFIKOA. Mantentze-pobreziako arriskuan eta ongizate gabeziako arriskuan dauden haurren (15 urtetik beherakoak) % (Eurostat metodoa). EAEko eta Espainiako bilakaera 2004-2012



Iturria: EAEko datuak *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestak* hartu dira. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritzak. Espainiako datuak *Bizi-baldintzen Inkestak* hartu dira. EIN.

Oharra: EAEko 2012ko eta 2008ko datuak datu doituak dira (2012ko atalaseak), 2004ko datua, berriz, urte hartan argitaratutako txostenetik dator eta ez dago doituia. Espainiako datuak gutxi gorabeherakoak dira, 16 urtetik beherako herritarrei egiten diete erreferentzia eta Eurostat metodoaren arabera pobrezia erlatiboko (batez bestearen % 60) arriskuari dagozkie.

Erabili ohi diren eta komentatu izan ditugun pobrezia-adierazleek diru-sarrerara maila kontuan hartuta pobrezia-egoera pairatzeko arriskua dute hizpide, baina arrisku hori beti ez da pobrezia edo estatusun erreala izaten. *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestak*, zenbatespena gehiago doitze aldera, adierazle osagarri bat eskaintzen du benetan pobrezia-egoeran dauden herritarren zatia bereizteko, arriskua aztertzen duen adierazlea gaindituz.

Horrela bada, pobrezia errealeko¹⁸ adierazleek, diru-sarrerara mailan pairatutako urritasunaz gain (arriskuan dago), egoera hori konpentsatu dezaketen edo ezin duten beste elementurekiko konbinazioa ere hartzen dute kontuan. Kontuan hartzen diren elementuak, krisi edo larrialdi egoera berezietan, epe ertain edo luzean, bizitza arruntarekin jarraitzeko aukera bermatzen duen gutxieneko bizi-maila egokia mantendu ahal izateko beharrezkoak diren ondare


baliabideak edo bestelako kontsumo iraunkorreko ondasunak izatearekin lotuta daude. Pobrezia erreala kalkulatzeko, azken urtean egondako gabezia egoerak eta pobrezia-aren pertzepzio subjektiboa ere aintzat hartzen dira.

Horrela bada, EAEn pobrezia errealeko egoeren eragina duten herritarrek % 5,3 inguru osatzen dutela balioesten da -arriku-tasa % 7,3koa den arren- eta ehuneko horrek diru-sarrera nahikorik ez izateaz gain, egoera hori konpentsatzeko bestelako ondasunik ere ez duten herritarren zatiarekin bat egiten du.

Bestalde, ongizate-gabeziako arriskuaren atalasetik beherako diru-sarrera maila duten herritarrek % 19,9 osatzen dute, ongizate-gabeziako egoera errealean dauden pertsonak, berriz, % 10,1 osatzen dutela kalkulatu da.

Nolanahi ere, eta aurreko adierazleekin antzemandakoaren antzera, mantentze-estutasun egoeran bizi diren pertsonen proportzioak zein gutxieneko ongizate egoeran ez dauden pertsonenak gora egin du azken lau urteetan.

6. GRAFIKOA. Pobrezia errealeko egoeran eta ongizate-gabezia errealeko egoeran dauden herritarren %. EAEko bilakaera 1996-2012




Iturria: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012*. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritzak.
Oharra: EPDS 2012an doitu gabeko datuak 1986-2000 tarterako birkalkulatu dira, 2004tik aurrera EPDS metodoan pobrezia-atalasek eta ongizate-gabezia kalkulatzeko moduan gaineratutako aldatetara homologatze aldera.

15 urtetik beherako herritarren % 9,5 oinarriko premiak asetzeko diru-sarrera nahikorik ez izateaz gain, egoera konpentsatzeko bestelako ondasunik ez duen familia batean bizi dela kalkulatu da (mantentze-pobrezia erreala pairatzen duten herritarrek).


Haurrei dagokienez, 15 urtetik beherako herritarren % 9,5ek pairatzen zuten 2012an EAEn mantentze-pobrezia errealeko egoera (gogora dezagun arriskuan zeuden adingabeen zenbatekoa % 11,7koa zela) eta adingabeen %14,1ek ongizate falta errealeko egoera (% 22,2 arriskuan). Adierazle horien datuak argiago azaltzen dute 2008. urtearekiko hazkundera.

7. GRAFIKOA. Mantentze-pobrezia errealeko egoeran dauden haurren (15 urtetik beherakoak) %. EAEko bilakaera 2008-2012 (13. ADIERAZLEA)



Iturria: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.*

8. GRAFIKOA. Ongizate-gabezia errealeko egoeran dauden haurren (15 urtetik beherakoak) %. EAEko bilakaera 2008-2012 (14. ADIERAZLEA)



Iturria: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Krisiak haurrengan izan dituen eraginak sakontasunez ezagutzen jarraitzeko, interes bereziko bidea familien profilararen azterketa xehatua —pobrezia-arriskuari loturiko aldagai nagusien arabera: egitura, lan-estatusa, adingabeen kopurua, etab.— eta familia moten arabera ezberdintasunen identifikazioa da.

Gogoratu beharra dago, 2008an, EAEan 197.743 familia zeudela 13 urtetik beherako seme-alabekin, hau da, euskal familia guztien % 24,9.¹⁹

Erreferentzia gisa 4 kideko euskal familia hartzen bada, kide nagusiak 45 urtetik behera izanik, ongizate-gabeziaren atalasea hileko 1.970,27 eurotan kokatzen da eta pobrezia-atalasea hileko 1.499,04 eurotan²⁰.

2. TAULA Ongizate-gabeziako atalasea (€). EAE eta Espainiako bilakaera 2004-2012 (15. ADIERAZLEA)

Lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua	Aurreko datuen seriea	
		2012	2008
EAE	1.970,27€	1.894,10	1.639,07
Espainia	15.768,0€	16.282,0	13.185,2

Iturria: EAEko datuak *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestatik* hartu dira. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Espainiako datuak *Bizi-baldintzen Inkestatik* hartu dira. EIN.

Oharra: EAEko atalasea EPDS metodoarekin kalkulatu da eta 4 kideko familietarako, kide nagusiak 45 urtetik behera izanik, hileroko diru-sarrerak ditu hizpide. Espainiako atalasea Eurostat metodoarekin kalkulatu da (batez bestearen %60) eta 2 heldu eta bi haurretako familietarako urteroko diru-sarrerak ditu hizpide.

EAEko familietan ongizate-gabeziako arriskua neurtzeko aintzat hartzen diren diru-sarriren atalaseen bilakaerak 2008arekin alderatu hazkunde txiki bat gertatu dela adierazten du (2012ko atalasea 2008koa baino % 4 handiagoa da), baina ziurrenik aurreko laurtekoan gertatutakoa baino txikiagoa (2008ko atalasea 2004koa baino % 15,5 handiagoa izan zen). Espainiako datuek atalasearen murrizketa adierazten dute Espainiako familietako batez besteko diru-sarriak jaitzi izanaren ondorio gisa.

14 urtetik beherako kideren bat duten familiak osatzen dituzten herritarrentzako pobrezia-arriskua herritarrentzat orokorrean zenbatetsitakoa (% 7,3) baino 3,4 portzentaje-puntu altuagoa da eta % 10,7koa da.


Pobrezia-arriskuaren tasa altuagoa da 14 urtetik beherako kideak dituzten familietan bizi diren herritarrentzat. Familian zenbat eta adingabe gutxiago egon, hainbat eta pobrezia-arrisku handiagoa dago.

Familian zenbat eta adingabe gutxiago egon, hainbat eta pobrezia-arrisku handiagoa dago. 14 urtetik beherako 3 kide edo gehiago dituzten familietan bizi diren pertsonentzat, pobrezia-tasa % 28,3ra igotzen da, adingaberik gabeko familietan bizi diren herritarrentzako tasa, berriz, % 5,6ra murrizten da²¹.

Bestalde, pobrezia-tasak adingabeen adinak gora egin ahala igotzen dira, besteak beste, helduagoak diren horiek, orokorrean, beste adingabeak ere dituzten familia handiagoetan bizi direlako.

Era berean, batez besteko orokorretik 3,2 puntu altuagoa da bai pobrezia errealeko tasa bai ongizate-gabezia errealeko tasa herritarren artean 14 urtetik beherakoak dituzten familietan. Pobrezia errealeko egoeran bizi diren pertsona guztien % 53,8²² 14 urtetik beherakoak dituzten familietan bizi da.

9. GRAFIKOA. 14 urtetik beherako kideren bat duten familietan bizi diren eta mantentze-pobrezia-arriskuan, mantentze-pobrezia errealeko arriskuan eta ongizate-gabezia errealeko egoeran dauden herritarren %. EAEko bilakaera 2008-2012



Iturria: Pobrezia-aren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritzia.

Familia batzuk beste batzuk baino zaurkorragoak dira eta baztertzeko arrisku handiagoa dute. Gainera, familia batzuek krisiaren ondorioak are gehiago pairatzen dituztela esan genezake, euren abiapuntua dagoeneko nahiko kritikoa zelako beste batzuekin alderatuta.

Mantentze-pobreziako arriskuan dauden guraso bakarreko familietako herritarrek egitura hori duten familietako herritar guztien % 19,2 osatzen zuten 2012an, hau da, orokorra (% 7,3) baino 11,9 puntu gehiagoko tasa eta 14 urtetik beherako kideak dituzten familietan bizi diren pertsonen dagokien pobrezia-arriskuko tasa baino 8,5 puntu gorago ere badago. Bestalde, ongizate-gabeziako arriskua % 35,6ra igotzen da guraso bakarreko familietako herritarren artean²³.

Gogoratu beharra dago 2008an EAEn guztira guraso bakarreko 26.246 familia zeudela mendeko seme-alabekin, hau da, guraso bakarreko familien % 40 eta euskal familien % 3. Guztira 16 urtetik beherako 17.500 adingabe zeuden guraso bakarreko familietan bizitzen²⁴, hau da, adin horretako adingabeen % 6.

Adingabeak dituzten familietako batzuek pobreziarako arrisku berezia dute: guraso bakarreko familiak, atzerriko nazionalitatea duen pertsona baten mendeko familiak, kualifikazio baxuko edo 35 urtetik beherako burua duten familiak.

Guraso bakarreko familietan bizi direnen -egoera ezberdinengatik guraso bakar batekin bizi diren haurrak- zaurkortasun berezia pobrezia eta ongizate-gabezia errealeko datuetan (diru-sarrera mailaz gain ongizate edo estutasuneko beste elementuak kontuan hartzen dituzten tasak) azaltzen dira bereziki.

Pobrezia errealeko eragina duten guraso bakarreko familien proportzioa (18,2%) batez besteko orokorra (% 5,3) baino 12,9 portzentaje-puntu handiagoa da eta krisiaren eragin nabarmena pairatu du, izan ere, 5 puntuko hazkundera jaso du 2008arekin alderatuta. Gainera, ongizate-gabezia errealeko egoeran dauden familiek % 29,1 osatzen dute, hau da, batez bestekoa baino 19 portzentaje-puntu gehiago²⁵.

Egoera mutur kritikoenera heltzen da lanbide ezegonkorra duten 45 urtetik beherako emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familien kasuan, izan ere, horien % 63,8 mantentze-pobrezia errealeko egoeran dago²⁶.

3. TAULA Guraso bakarreko familietan edo atzerriko nazionalitatea duen, ikasketarik ez duen zein 35 urtetik beherakoa den pertsona baten mendeko familietan bizi diren herritarren mantentze-pobrezia errealeko tasak.

EAEko bilakaera 2008-2012

EAE	Eskura dagoen azken datua	Aurreko datuen seriea
	2012	2008
20. ADIERAZLEA. Guraso bakarreko familietan bizi diren eta mantentze-pobrezia <u>errealeko</u> egoeran dauden herritarren %.	18,2	13,2
21. ADIERAZLEA. Atzerriko nazionalitatea duen pertsona baten mendeko familietan bizi diren eta mantentze-pobrezia <u>errealeko</u> egoeran dauden herritarren %	32	27,7
22. ADIERAZLEA. Ikasketarik gabeko pertsona baten mendeko familietan bizi diren eta mantentze-pobrezia <u>errealeko</u> egoeran dauden herritarren %	15,8	8,8
23. ADIERAZLEA. 35 urtetik beherako pertsona baten mendeko familietan bizi diren eta mantentze-pobrezia <u>errealeko</u> egoeran dauden herritarren %	18	9,4

Iturria: Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.



Krisiak mantentze-pobrezia errealeko tasaren hazkundera izan duen eragina bereziki nabarmena izan da atzerriko nazionalitatea duen pertsona baten mendeko familietako herritarrengan. Talde horrek % 32ko pobrezia errealeko tasa dauka —duela lau urte baino 4,3, portzentaje-puntu gehiago—, atzerritarra ez den pertsona baten mendeko familietako herritarren kasuan, berriz, % 3,3 besterik ez dago egoera horretan.

Halaber, pobrezia errealaren eragin handia pairatu dute ikasketarik gabeko pertsona baten mendeko familietako herritar adingabeek. Kasu horietan tasa %15,8koa da, ikasketa kualifikatuak dituen pertsona baten mendeko familietan bizi diren pertsonetarako, berriz, % 15,8koa da. 2008az geroztik azken tasa horrek 0,2 bakarrik egin du gora, ikasketarik gabeko pertsona bat buru duten familietako pertsonena, berriz, 7 puntu handitu da tarte berean. Zehazki, pobrezia errealeko kasuen % 92,8 ikasketa kualifikaturik gabeko pertsona bat buru duten familietako pertsonak osatzen dute.

35 urte baino gutxiagoko pertsona gazte baten mendeko familietan bizi diren hurrek ere beste batzuek baino gehiago pairatzen dituzte pobrezia errealeko egoerak. Pertsona gazteen mende dauden familietan bizi diren herritarrentzako pobrezia errealeko tasa % 9,4tik % 18ra igaro da 2008tik 2012rako tartean.

Gabezia:

Esan dugun moduan, pobrezia erlatiboko formula batzuek familietako diru-sarrera eskuragarriak hartzen dituzte kontuan eta gutxieneko atalaseak herrialde bakoitzeko batez besteko errentaren arabera ezartzen dituzte. Beste metodologia batzuek, berriz, pobrezia zuzeneko adierazleak hartzen dituzte kontuan, herrialde guztietarako modu finkoan defini daitezkeen ondasun, zerbitzu eta aukera zehatzen gabetasuna aintzat izanik. Azken adierazle mota horrek ikuspegi osagarria eskaintzen die pobrezia azterketei eta gastuari eta kontsumo ereduari, familiek zailtasun ekonomikoei aurre egiteko dituzten estrategiei, familien lehentasunei, etab. buruzko informazioa gaineratzen du.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu haurren pobrezia-tasa interpretatzea zaila dela, familiako kideek eskura dituzten baliabideak modu zuzenean banatzen dituztela suposatuta arren, ez dakigulako zer puntutaraino lehenesten dituzten gurasoek haurrak babesteko hainbat gastu errenta-mailen ustezko murrizketaren aurrean. Familien gabezia-egoerei buruzko adierazleek muga hori gainditzen laguntzen dute eta EAEko hurrek bizi dezaketen errealitatea beste ikuspegi batetik ondorioztatzeraz bultzatzen gaituzte.

Orokorrean, krisi ekonomikoak errentaren batez besteko mailaren beherapena ekarri du, baina, era berean, eragin handia izan du kontsumo ereduaren eta beharrak asetzeko estrategien aldaketan.

Eskura dugun informazioak azaltzen duenez, 2010eko EAEko familia bakoitzeko batez besteko urteko errenta garbia 2009koa baino zertxobait altuagoa izan zen, %1eko hazkundera besterik eman ez zen arren. 2008 eta 2009ko tartean % 2,8ko beherapena pairatu zen, 2006 eta 2007ko tartean, berriz, % 7,5 hazi zen, 2007 eta 2008ko tartean bezalaxe, eta urte horretan epealdiko zifrarik altuena lortu zen.

4. TAULA Familia bakoitzeko batez besteko urteko errenta garbia (€). EAE eta Espainiako bilakaera 2006-2010 (24. ADIERAZLEA)

Lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua	Aurreko datuen seriea			
		2010	2009	2008	2007
EAE	30.788	30.456	31.348	29.163	27.134
Espainia	25.094	26.033	26.500	26.010	24.525

Iturria: EAEko eta Espainiako datuak *Bizi-baldintzen Inkestatik* hartu dira. IEN

Espainiarako datuetan ere batez besteko errentaren beherakada antzeman daiteke 2009az geroztik, eta kasu horretan beherapena 2010ean ere mantendu da.

Herritarren ia % 17 premia biziko gastuak murriztu behar izan dituzten familietan bizi da, duela 4 urte baino pertsona kopuru bikoitza.

2008az geroztik ia bikoiztu egin da bigarren eskuko jantziak erabili dituzten pertsonen ehunekoa (% 7,1).

Euskal etxeetako ia % 17 zailtasunez edo zailtasun handiz heltzen dira hilabete amaierara.

2011n, 10 familietatik 2k ezin zieten ustekabeko gastuei aurre egin, urtebete lehenago baino ia % 2 kasu gehiago.


Joera orokorra lehenik eta behin funtsezkoenak ez diren gastuak murriztea eta ondoren oinarrizkoak murriztu behar izan arte itxarotea da. Horregatik, azpimarratu beharra dago, herritarren % 16,7 premia biziko gastuak murriztu behar izan dituzten familietan bizi direla, duela lau urte erregistratutako tasa bikoizten duena. Ehuneko hori ia % 68,5era igotzen da pobrezia arriskuan dauden familiak bakarrik kontuan hartzen badira.²⁷

Azken urtean bigarren eskuko jantziak erabili dituzten familietan bizi diren pertsonen ehunekoak ere gora egin du, 2012an EAEko herritarren % 7,1era igo baita, krisiaren hasieran % 3,7 inguruan kokatzen zen bitartean. Bigarren eskuko jantziak erabiltzen dituzten pertsonen pobrezia arriskuan dauden familietako pertsonen ehunekoa % 33,4koa da.²⁸

Krisiaren eragin nabarmena pairatu duen kontsumoaren beste alderdi bat 10 urte baino gutxiagoko ibilgailu bat eskuratzeko aukera izan da. Arrazoi ekonomikoengatik halakorik ez duen familietako herritarren proportzioak 4,5 puntu egin du gora eta % 18,3an kokatzen da.

Kontsumo murrizketek egitura tradizionalako familietan (gurasoetako batek bakarrik lan egiten duenean) eta guraso bakarreko familietan izan dute eragin gehien, eta neurri txikiago batean diru-sarrerara bikoitza dutenetan. Azken horiek krisiaren eragin txikiagoa pairatzen dute, hala ere, hainbat ikerketek²⁹, epe labur edo ertainean bi gurasoen lana oztopatu dezaketen kontziliazio zailtasunak (beste arrazoi batzuen artean, zaintzarako laguntza sistemetan egondako murrizketen ondorio) gorantz doazela ohartarazi dute.


10. GRAFIKOA. Arrazoi ekonomikoengatik 10 urte baino gutxiagoko ibilgailurik ez duten, oinarrizko premien gastuak murriztu dituzten eta azken urtean bigarren eskuko jantziak erabili dituzten familietan bizi diren herritarren %. EAEko bilakaera 1996-2012



Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritzia.

2011n, euskal familietako % 16,9k hilabete amaierara zailtasunez edo zailtasun handiz heltzen direla onartu zuten. Tasa hori, estatu mailan erregistratutakoa baino 10 puntu baxuagoa izan arren, kontuan hartu beharrekoa da, bereziki urte bakar batean, 2011 eta 2010 bitartean, 1,7 puntuko hazkundera pairatu duelako.


11. GRAFIKOA. Hilabete amaierara heltzeko zailtasuna edo zailtasun handia duten familien %. EAE eta Espainiako bilakaera 2004-2011 (28. ADIERAZLEA)



Iturria: Bizi-baldintzen Inkesta. EIN.

Gainera, EAEko familietako %20,9k ez zuen gaitasunik 2011ko ustekabeko gastuei aurre egiteko, Espainiakoa baino 15 puntu baxuagoko zifra izan arren, EAEn urtebete lehenago erregistratutakoa baino 1,9 puntu handiagoa da.

12. GRAFIKOA. Ustekabeko gastuei aurre egiteko gaitasunik ez duten familien %. EAE eta Espainiako bilakaera 2004-2011 (29. ADIERAZLEA)



Iturria: Bizi-baldintzen Inkesta. EIN

2011ko Bizi-baldintzen Inkestak, aurreko adierazleen jatorri denak, inkestatutako pertsonak -25 eta 59 urte bitartekoak- nerabeak zirenean zuten familien egoera sozioekonomikoa egun dutenarekin alderatzen du.

Emaitzek gurasoen maila sozioekonomikoak euren seme-alaben etorkizuneko ongizatearen aurreikuspenetan eragin garrantzitsua daukala azaltzen dute, hau da, pobrezia belaunaldi-igorpenaren berri ematen dute.

Pobrezia belaunaldi belaunaldi transmititzen da.


Hilabete amaierara heltzeko zailtasun handia edo nahikoa zuten familietan hazi ziren pertsonen %46,8 egoera berean bizi da helduaroan eta %13,8 bakarrik heltzen da hilabete amaierara erraztasunez edo erraztasun handiz. Osterantzean, euren nerabezaroan hilabete amaierara heltzeko erraztasuneko edo erraztasun handiko egoerak bizi zituzten pertsonen % 23,2k bakarrik ditu gaur egun gabetasun arazoak³⁰.

Beste datu interesgarri batek azaltzen duenez, familia askok koltxoi motaren bat duten neurrian (aurrezkiak, familien laguntza...), nolabaiteko atzerapena egoten ohi da krisi ekonomikoaren hasieraren eta bere eragin guztia pairatzen deneko unearen artean. Horrela bada, EAEko herritarren % 12,3 2012an euren betebeharrak eta ohiko gastuei aurre egiteko aurrezkiak neurri handi batean erabili behar izan dituzten familietan bizi da, 2008an erregistratutakoa hirukoizten duen tasa.

Halaber, denbora tarte berean, euren gastuak estali ahal izateko senideei, auzokideei, lagunei edo erakundeei dirua eskatu behar izan dizkieten familietan bizi diren pertsonen ehuneko bikoiztu egin da. % 12,9k egin behar izan du, % 65,3ra arte igotzen den ehuneko pobrezia-arriskuan dauden familiak kontuan hartzen badira.³¹

Herritarren % 12,9 senideei, lagunei edo erakundeei dirua eskatu behar izan dieten familietan bizi da, 2008aren kopuru bikoitza.

13. GRAFIKOA. Dirua eskatu behar izan duten, aurrezkiak neurri handi batean erabili behar izan dituzten eta zorpetzeko arriskuan dauden familietako herritarren %. EAEko bilakaera 1996-2012



Iturria: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Aurrezkirik izan gabe, euren diru-sarrerak baino gehiago gastatzen duten pertsonen proportzioa herritarren %2,1ekoa da (zorpetze-arriskuan egongo liritekeen herritarrek kontsiderazio horren arabera). 1996az geroztik erregistratu den tasarik altuena izan arren, maila txikietan mantentzen da eta aurretik erregistratutakoen antzekoa da, zehazki, 2008koa baino 0,7 puntu altuagoa da. Hala eta guztiz ere, zifrak balio altuagoak hartzen ditu zaurkorragoak diren herritar talde batzuentzat, hau da, ehunekoa % 20,9ra heltzen da aurrezkirik izan gabe, eskura dituzten diru-sarrerak gainditzen dituzten ohiko gastuak dituzten pobrezia-arriskuko familiak kontuan hartzen badira.³²

Etxebizitza:

Etxebizitza pertsona ororen beharrezko ondasunetako bat da eta, horrela bada, herrialde garatueta legerietan eskubide nagusietako batzuen artean onartuta dago. Egoitzaren baldintzek pertsonen bizi-kalitatea baldintzatzen dute eta bereziki haurren garapenerako aukerak.

Krisiaren aurreko azken urteetan etxebizitzaren garestitze handia pairatu genuen eta, horrez gain, alokairuko etxebizitza eskaintza oso urria zenez, etxebizitza eskuratzea oso zaila izan zen bitarteko nahikorik ez zutenentzat eta herritar asko sozialki egokitzen jo ezin ez den zorpetze-mailara heldu ziren.

Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak oztopo handia direnean, bereziki pertsona gazteentzat, bizitza independentea izateko baliabide nahikorik ez izateagatik, estalitako estatusun motaz ari gara eta familia berriak sortzeko zailtasunarekin eta seme-alabak izateko etorkizuneko proiektuen atzerapenarekin lotuta dago. Zehazki, 2012an 18 eta 44 urte bitarteko EAEko

Ordaindu gabeko jabetzako etxebizitza duten 10 familietatik ia 3k harekin loturiko gastuetarako diru-sarreraren % 30 baino

herritarren % 24,5ek etxebizitza independentea eratu nahi zuten eta ezin zuten egin baliabide ekonomiko faltarengatik. Ratio hori 2004 eta 2008 bitartean mantendu zen eta azken laurtekoan gorakada handia pairatu du³³.

Etxebizitzaren kosteari aurre egiteko familien ahalegin garbiaren tasak gastuen pisua (alokairua, hipoteka, komunitatea, udaletako tasak, interesen amortizazioa...) familietan dauden diru-sarreraren pisuarekin lotzen du eta zailtasun gehien pairatu behar dituzten taldeen berri ematen du.

Tasaren balioa etxebizitzaren edukitze-erregimenarekin lotzen da: une honetako batez besteko tasa familia guztiak kontuan hartuta 12,3an kokatzen da baina 21,6raino igotzen da ordaindu gabeko jabetzako etxebizitza duten familietarako eta 31,1eraino alokairu-erregimenean bizi diren familietarako³⁴.


Zorpetze errealitate zailenek duten garrantzia kontuan hartzen badugu, euskal familietako % 16k bere diru-sarreraren % 30 baino gehiagoko etxebizitzako gastuak dituela antzematen dugu eta ehuneko hori % 48,8raino igotzen da pobrezia-arriskuan dauden herritarrek bakarrik aintzat hartzen badira³⁵.

Baina, horrez gain, ordaindu gabeko jabetzako etxebizitzak dituzten familiak bakarrik kontuan hartzen badira, ehunekoa % 27,1era heltzen da, eta alokairu-erregimeneko etxebizitza duten familien kasuan zorpetze-maila hori gainditzen dutenen proportzioak % 59,6 osatzen du³⁶.

gehiago bideratzen dute eta alokairuan bizi diren 10etatik 6 egoera berean daude.

2011n 1.174 hipoteka-betearazpen burutu ziren EAEn. Gainera, gaur egun, herritarren % 5,9k etxebizitzarekin loturiko gastuen ordainketak burutu ez izanagatik edo atzeratu izanagatik arazoak ditu.

14. GRAFIKOA. Etxebizitzaren kosteari aurre egiteko familien ahalegin garbiaren tasa eta euren diru-sarreraren % 30etik gorako etxebizitza gastuak dituzten familien %. EAEko bilakaera 2004-2012




Iturria: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012*. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Oharra: 2012 eta 2008ko datuak datu doituak dira (2012ko atalaseak). 34. ADIERAZLEko 2008 datuei dagokienez: 2012an gaineratutako aldaketak direla-eta, parekatze aldera, alokairu, amortizazio, komunitate eta udaletako tasetako gastuak bakarrik gaineratu dira. Ez da OHZ gaineratzen ezta energia edo telefono gastuak ere.

Krisiaren ondorioz hipoteka bat eskatu zuten pertsona askok hileroko kuotak ordaintzeari utzi behar izan diote eta ordaindu ez izanagatik zigorrek zorrak handitzen dituzte etxebizitzaren prezioak beherakada handia pairatzen duen unean. Prozesu hori, bereziki familia zaurkorrenetan, bahitura eta kaleratzeekin amaitzen da askotan.

2012an, EAEko herritarren % 5,9 etxebizitzarekin loturiko gastuak ordaindu ez izanagatik edo atzeratu izanagatik sortutako arazoak dituzten familietan bizi da, 2008an egoera horrek % 2,9ri besterik eragiten ez zion bitartean.

15. GRAFIKOA. Ordainketak (alokairuak, kredituak, hipotekak, ordainagiriak) burutu ez dituzten edo atzeratu dituzten familietan bizi diren herritarren %. EAEko bilakaera 2004-2012



Iturria: *Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.*

Hipoteka-betearazpenak etxebizitza baten bahiturari bide ematen dioten eta hipoteka-zorren ordainketa eskatzeko aukera eskaintzen duten prozedura judizialak dira. Zordunak ordaintzeke dituen kontuak ordaintzen ez baditu, etxebizitza enkantean jarriko da eta prozesua kaleratzearekin amaitzen ohi da.

5. TAULA Hipoteka-betearazpenen kopurua (Auzitegi Nagusiak aurkeztuta). EAE eta Espainiako bilakaera 2007-2011 (36. ADIERAZLEA)

Lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua	Aurreko datuen seriea			
	2011	2010	2009	2008	2007
EAE	1.174	1.175	1.255	985	584
Espainia	77.854	93.636	93.319	58.686	25.943


Iturria: *Informes periódicos. Datos sobre el efecto de la crisis en los órganos judiciales: Segundo trimestre de 2012. Consejo General del Poder Judicial*

Eskura ditugun azken datuen arabera, 2011n 1.174 hipoteka-betearazpen burutu ziren EAEn, 2007an, krisia hasi zenean, baino 590 gehiago. Uneko testuinguruak hipoteka-berankortasunaren igoera iragartzen du eta, harekin batera, bahitura gehiago izango dituen 2013rako egoera.

Bestalde, bizigarritasun arazo nabarmenak dituzten familietan bizi diren herritarren ehunekoak azken urteetan beheranzko joera azaldu eta 2012an % 6,2 inguruko minimo historikoa erregistratu duen arren³⁷, etxebizitzaren hotzaren ondoriozko estutasunaren eragina pairatu duten herritarren hazkundera azpimarratu beharra dago.

Herritarren % 8,3 etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko aukerarik ez izanagatik azken neguan uneraren batean hotza pasa duten etxebizitzetan bizi da. Hotza pasa duten familia pobreetako herritarren kopurua 33,6% ingurukoa da³⁸

16. GRAFIKOA. Azken neguan uneren batean hotza pasa duten familietan bizi diren herritarren %. EAEko bilakaera 1996-2012



Iturria: *Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012*. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritz

Lana eta diru-sarreraren bermea:

Langabezia pobrezia eta gizarte bazterkeriako arriskuaren hazkunderik handiena eragin duen aldagaietako bat da eta ezin dugu ahaztu langabeziaren eta haurren pobrezia-tasaren mailek korrelazio positiboa aurkezten dutela. Lan merkatuan ez parte hartzeak edo neurri txikian parte hartzeak beste gizarte eskubideen erabileran ondorio zuzenak dituen baztertze-prozesu baten hasiera zehazten edo bultzatzen du, horregatik, EAEn egun arte bideratutako gizarteratzeko planek lana pobrezia eta gizarte baztertzea murrizteko elementu garrantzitsutzat jo dute. Hori bai, gizartea eta familia babesteko sistemen erantzunak lan lanaren suntsiketaren ondorioak arindu ditzake.

Euskal gizarteak aurrerapauso handiak bizi izan ditu azken urteetan diru-sarrerak bermatzeko sistema zein gizarte zerbitzuen sistema finkatzeari dagokionez. Aurrerapauso horiek bizitzaren oinarriko premiei aurre egiteko bitarteko ekonomikoak izateko eskubide subjektiboa eta herritarren gizarte eskubideen erabilera eraginkorrerako bitarteko pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez dutenen gizarteratzea lortzeko neurria egindako laguntza jasotzeko eskubidea onartzen dituzten legezko erabakiak³⁹ izan dituzte oinarri.


Langabezia tasa maila kezagarrietara heldu da. 2012ko hirugarren hiruhilekoan, EINen zenbatespenen arabera, EAEko biztanleria aktiboaren % 15,5 langabezian zegoen, hau da, bi urte lehenago baino 5 portzentaje-puntu gehiago eta ekonomia dezelerazioaren hasiera baino lehenago erregistratutako tasa baino 9 puntu gehiago. Espainiako batez bestekoarekiko aldeko ia 10 puntuko distantzia mantentzen duen arren, ia 5 puntutan gaintzen du Europar Batasuneko batez bestekoa eta, ondorioz, EAEko 157.700 pertsona⁴⁰ langabezian daude gaur egun.

Esan dugun moduan, pobrezia herritar guztiengan eragin bera ez duen bezala, langabezia eta lana neurri ezberdinetan sakabanatzen da. Hainbat gizarte taldek aukera handiagoa dute eragina pairatzeko euren sektore ekonomikoaren, kontratazioaren izaeraren edo kualifikazio mailaren arabera.

Bereziki larria da herritar gazteenen artean (16 eta 24 urte bitartekoak) dagoen langabezia tasa, une honetan langabezia dauden herritarren % 14,9 osatzen baitute⁴¹. EAEko 25 urtetik beherako biztanleria aktiboaren % 43,07, hau da, 23.600 pertsona gazte, langabezia daude gaur egun, eta zifra horrek 25 puntu egin du gora 2006rekin alderatuta.

Kontuan hartu beharra dago jasotako datuen arabera langabezia tasak neurri txikiago batean eragiten diela heziketa maila handiagoa duten pertsonen. Adibidez, langabezia tasa 3,5 portzentaje-puntu txikiagoa da goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean lehen mailako ikasketak dituztenen artean baino⁴².

17. GRAFIKOA. Langabezia-tasa (16-64 urte) eta gazteen langabezia-tasa (16-24 urte) EAE, Espainia eta Europako bilakaera 2006-2012



Iturria: *Biztanleria Aktiboaren Inkesta*. EIN eta Eurostat.

Oharra: Europako datua 38. ADIERAZLEAri buruzkoa da eta urteko batez bestekoari dagokio.

Era berean, iraupen luzeko langabezia-tasak, 2011n % 4,8koa zenak, hazkunde nabarmena jasan du 2009. urteaz geroztik krisiaren ondorioak antzematen hasi zirenetik. 2010eko datuetan antzeman dezakegunez, EAEko tasa Europar Batasuneko batez bestekoaren oso atzekoa izan zen eta Espainiako tasa baino dezente atzerago zegoen.

6. TAULA Iraupen luzeko langabezia-tasa. EAE, Espainia eta Europako bilakaera 2006-2011 (40. ADIERAZLEA)

Lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua	Aurreko datuen seriea				
		2011	2010	2009	2008	2007
EAE	4,8	3,8	1,9	0,9	0,8	1,4
Espainia	-	7,3	4,3	2,0	1,7	1,8
UE27	-	3,9	3	2,6	3,1	3,7

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EUSTAT eta EUROSTAT.

Interesgarria da pobrezia eta langabezia arteko harremana aztertzea. Langabezian dagoen pertsona baten mendeko familia batean bizi diren pertsonen mantentze-pobreak arriskua % 49,4koa da (batez beste orokorra baino 42,1 portzentaje-puntu gehiago) eta ongizate-gabeziako arriskua % 70,8raino heltzen da (batez beste orokorra baino 50,9 puntu gehiago)⁴³.

Zenbatetsitakoaren arabera, 2012an EAEko familien % 8,10ek dituzte euren kide guztiak langabezian, hau da, duela bi urte besterik ez egoera horretan zeuden familien bikoitzak.

7. TAULA Kide guztiak langabezian dituzten familien %. EAE eta

Espainiako bilakaera 2006-2012 (41. ADIERAZLEA)

Lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua	Aurreko urteetako datuen seriearen bilakaera			
		2012 (III. hiruhilekoa)	2010 (III. hiruhilekoa)	2008 (III. hiruhilekoa)	2006 (III. hiruhilekoa)
EAE	8,10	4,71	2,63	2,51	
Espainia	13,36	10,00	5,02	3,28	

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. EIN.

Kasu horietan pobrezia-arriskua % 7,3tik (tasa orokorra) % 45,7ra igotzen da eta ongizate-gabeziako arriskua % 19,9tik (tasa orokorra) % 67,3ra. Pobrezia errealak kide aktibo guztiak langabezian dituzten familien % 37,9ri eragiten dio eta ongizate-gabezia errealak horien %49,3ri⁴⁴.

Familia mota horietan bizitzen egon daitezkeen adingabeen kopurura hurbiltzen gaituen datu orientagarri batek adierazten duenez 2011n lanean dauden kiderik ez duten familietan bizi ziren 18 urtetik beherakoen proportzioa % 7,2 ingurukoa zen.⁴⁵

Familien % 8 inguruk kide aktibo guztiak langabezian ditu.


Pobrezia-tasak altuagoak dira lan egonkor bat duen kiderik ez duten familietan.

Lan-estutasun maila altuak dituzten herrialdeetan pobreak lanean dauden herritarrengan ere eragiten du. Soldata baxuak dituzten langileak aurreikusitako gutxieneko ongizate-mailetara heltzeko baliabide nahikorik ez dituztenen arteko talde nagusienetako bat dira. Ondorioz, ordainsari baxuko lanak, lanaldi murrizketei loturiko soldaten beherapenak, soldaten izozketak, etab. areagotzen diren neurrian, gero eta familia gehiago pobrezia eta gizarte bazterkeriako arriskuaren eremuan kokatzen dira eta horietako askok mendeko seme-alaba adingabeak dituzte.

Enplegua erregulatzeko espedienteek buruzko datuek argi uzten dute krisia lanean eta lan-baldintzetan izaten ari den eragin handia.

2006an gure autonomia erkidegoan enplegua erregulatzeko 173 espediente⁴⁶ baimendu ziren bitartean, 2011n kopurua 1.557 espedientetara igo zen, guztira 22.072 langilerengan ondorioak eraginez. Horietako % 90 lanaldia eteteko edo murritzeko espedienteak izan ziren⁴⁷.

18. GRAFIKOA. Enplegua erregulatzeko baimendutako espediente kopurua. EAEko bilakaera 2006-2011



Iturria: EUSTAT, datuen jatorria: Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietarako Saila.

Espediente kopururik handiena 2009an erregistratu zen, laurogeita hamargarren hamarkada hasierako antzeko zifra lortu zenean. Sexuaren arabera bereizitako 2010eko datuek ere argi uzten dute enplegua erregulatzeko espedienteek gizonengan izan dutela eragina gehien bat, eragindako pertsona guztien % 81,4 osatzen baitute⁴⁸.

Familia batzuetan arrisku bat baino gehiago dagoela jakin arren, aipatu beharra dago, 2008ko *Familiei buruzko inkestaren* datuen arabera, lan ezegonkorra duen pertsonaren bat eta mendeko seme-alabak dituzten familiek % 16,6 osatzen dutela (eta horiek lan ezegonkorra duen pertsonaren bat duten familia guztien % 41 osatzen zuten)⁴⁹.

Bestalde, EAE batez besteko soldata altuenak dituen autonomia erkidegoetako bat bada ere, iturri berak adierazi zuen familien % 23k seme-alabak mendean izanik kideren batek gaizki ordaindutako lana zuela⁵⁰.

Hori guztia ikusita, badirudi 2008az geroztik krisia areagotu izanaren ondorioz lan-baldintzak okertzean zifra horiek gora egin dutela aurreko adierazleei dagokienez.

Pobrezia-tasak bereziki altuak dira kide nagusietakoren batek lan egonkorrik ez duenean.

Adibidez, aktibo guztiak langile egonkorrek dituzten familien mantentze-pobrezia-arriskuan dauden herritarren ehunekoa % 2,1 ingurukoa da, tasa hori, berriz, % 13,7raino heltzen da aktibo guztiak langile ez egonkorrek direnean⁵¹.

Egun arte, diru-sarrerak bermatzeko errentaren sistemak EAEko pobrezia-tasak eusten aldeko eragina izan duela dirudi.

Esan dugun moduan, langabeziaren eta pobrezia-tasen arteko lotura dago, baina eraginak garrantzi gehiago edo gutxiago dauka gizarte babeserako sistemen erantzunaren arabera.

Aldez aurretik aipatu dugu EAEko pobrezia-tasak Europar Batasuneko batez bestekoetatik eta, bereziki, Espainiako batez bestekoetatik behera daudela eta hori, neurri handi batean, diru-sarrerak bermatzeko sistemaren aldeko eraginari esker da.

2012an EAEko herritarren % 6,1 diru-sarrerak bermatzeko sistemaren prestazio ekonomikoetara (diru-sarrerak bermatzeko errenta/etxebizitzarako prestazio osagarria/gizarte larrialdietarako

laguntza) jo du, 2008an, berriz, % 3,9ek erabili zituzten. Datuek azaltzen dute, alde batetik, estutasun egoerek gora egin dutela, baina baita sistemak beharren estaldura handitu duela ere, 2012an arriskuan zeuden herritarren % 72,6ra heltzen baitzen, 2008an % 63,6 estaltzen zuen bitartean. Prestazio horiek, kasu batzuetan, mantentze-pobreziaren atalasea gainditzeko aukera eskaintzen dute eta, beste batzuetan, atalase horren eta eskura dituzten diru-sarreraren arteko aldea murrizteko aukera.

Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago, prestazio horiek jasotzeko eskubidea mantendu bada ere, krisiaren eragina nabaritu dela, izan ere, hileroko zenbatekoa murriztu da eta prestazioak eskuratzeko baldintzak zorrotzitu dira. Horregatik, bereziki garrantzitsua izango da lan honetan aurkezten diren adierazle multzoaren bilakaeraren jarraipena egitea, neurri batean, sistema honek krisi egoeretan duen indarra ebaluatzen lagundu baitezakete.

8. TAULA Diru-sarrerak bermatzeko prestazio-sisteman arreta jaso duten herritarren %. EAEko bilakaera 2008-2012

	Eskura dagoen azken datua	Aurreko datuen seriea
EAE	2012	2008
43. ADIERAZLEA. Diru-sarrerak bermatzeko prestazio-sisteman arreta jaso duten herritarren %.	6,1	3,9
44. ADIERAZLEA. Diru-sarrerak bermatzeko prestazio-sisteman arreta jaso duten arriskuan dauden herritarren %.	72,6	63,6

Iturria: *Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012*. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Ongizate materialaren pobreziatik haratagoko beste dimentsio batzuk: hezkuntza, osasuna, aisia eta parte-hartzea

Hezkuntza:

Haurren eskubideei buruzko hitzarmenaren 28. artikulua hurrek hezkuntzarako duten eskubidea aipatzen du, izan ere, estatuak nahitaez bermatu behar du derrigorrezko gisa definitutako garaiko hezkuntza, behintzat. Estatuak adierazi dutenez “Hezkuntza nortasuna eta gaitasunak garatzera zuzenduta egon behar da, baita giza-eskubideekiko eta oinarritzko eta gizarte eta kultura errealitate ezberdinetako askatasunekiko errespetua sustatzera ere”⁵².

Ez da harrizkoa hezkuntzari eskaintzen zaion garrantzia, izan ere, bertatik helduaroan garatzen joango diren aukera eta jarrera ugari sortzen dira. Hezkuntza ikastearen sinonimoa da, norbere garapeneraren edo gaitasun pertsonal eta sozialak eskuratzearen sinonimoa, baina baita lan-merkatuaren aurreko aukerena, sarrera ekonomikoetarako aukerarena eta, ondorioz, norberaren zein gizarte guztiaren pobrezia murriztearena. Horregatik, gaur egiten dugunak eta ez dugunak etorkizunean eragina izango du eta hezkuntzan egindako inbertsioa gizartearen garapenerako eta kohesiorako ardatz nagusietako bat bihurtzen da.

EAEan, zentro publikoetako lehen hezkuntzako gastua guztira (843.684 € 2009an) zein sistema publikoan lehen hezkuntzako ikasle bakoitzaren batez besteko gastua (6.551,3 € 2009an) handitu egin da azken urteetan. Zehazki, 2009an ikasle bakoitzeko egindako inbertsioak % 14 egin du gora 2007an egindako inbertsioarekiko, hau da, ia mila euro gehiago ikasle bakoitzeko. 2009. urtetik aurrerako daturik ezin izateak krisi egoeran adierazle horiek izandako garapena aztertzea zailtzen du, hala ere, datorren urteetako jarraipena ezinbestekotzat jotzen da.

9. TAULA Zentro publikoetan lehen hezkuntzan izandako gastua guztira eta ikasle bakoitzeko gastua (€). EAE, Espainia eta Europako bilakaera 2003-2009

	Lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua	Aurreko datuen seriea			
			2009	2007	2005	2003
45. ADIERAZLEA. Zentro publikoetan lehen hezkuntzan izandako gastua guztira (€).	EAE	843.684	666.378	556.666	456.382	
	Espainia	15.785.197	13.491.921	11.245.980	9.604.712	
46. ADIERAZLEA. Zentro publikoetan lehen hezkuntzan ikasle bakoitzeko gastua (€).	EAE	6.551,3	5.585,6	5.109,4	4.736,5	
	Espainia	5.570	-	-	-	
	EB	5.348	-	-	-	

45. ADIERAZLEAREN iturria: EAEko datuak *Irakaskuntza Publikoaren Gastu eta Finantzaketatik* hartu dira. EUSTAT eta estatuko datuak *Gasto Público en Enseñanza no universitaria* lanetik hartu dira. EIN.

46. ADIERAZLEAREN iturria: EAEko datuak *Irakaskuntza Publikoaren Gastu eta Finantzaketatik* hartu dira. EUSTAT. Espainia eta Europako datuak *Las cifras de la educación en España* lanetik hartu dira. *Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa*.

45. ADIERAZLEAREN oharra: Estatuko datuak haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan izandako gastu publikoari buruzkoak dira. 2009ko estatuko datuak behin-behinekoak dira.

46. ADIERAZLEAREN oharra: Espainia eta Europako datuak 2008koak dira. Bi kasuetan erakunde publiko eta pribatuetako gastu publiko eta pribatua hartu da kontutan eta lanerako prestakuntza ere gaineratu da.


Hala eta guztiz ere, hezkuntza sisteman egindako inbertsioa, garrantzitsua izanik, ez da adierazle nagusia sistemaren eraginkortasuna edo hezkuntzak pertsonen ongizatean eta pobrezia-tasak murrizterakoan duen eragina neurtzerakoan.

*Informe sobre la pobreza infantil a Catalunya*⁵³ bezalako azterlanek argi uzten dute pobrezia eta eskolatzetaseko arteko lotura, 17 urterekin eskolatzetase altuak dituzten Europako herrialdeek pobrezia-maila baxuagoak izaten ohi dituztela ikusten baita. Joera hori herri nordikoetan gertatzen da bereziki eta ez horrenbeste Mediterraneoeko herrialdeetan.

Espainia 17 urterekin eskolatzetase baxuena duen Europako herrialdeetako bat da. EAEk, berriz, Belgika edo Suedia bezalako herrialdeen joera dauka, Europa mailak tasa altuak baititu. Azken hamarkadan 17 urterekin eskolatzetase altua mantendu du, ia ehuneko ehunarekin 2009/2010 ikasturtean (%98,6), Europako batez bestekotik ia 10 puntu gorago.

17 urteko ikasleen eskolatzetase ikasketak goiz uztearekin oso loturik daude, derrigorrezkoen ondoko ikasketak ez egiteari erreferentzia egiten diona. Mota ezberdinetako azterlan eta estatistikek azaltzen dutenez, ikasketak goiz uztearen eta diru-sarrera baxuagoen, langabeziaren edo baztertzeko arriskuaren arteko lotura dago, hori dela-eta, Europar Batasunak Europa 2020 Estrategian ezarritako helburuetako bat ikasketak goiz uzteko joera hori %10etik behera murriztea da.

19. GRAFIKOA. Eskolatzetase garbia 17 urterekin. EAE eta Espainiako bilakaera 1999-2010 (47. ADIERAZLEA)



Iturria: *Las cifras de la educación en España*. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa.

Oharra: EAEko eta Espainiako datuek Araubide Orokorreko irakaskuntza, Arte Plastikoak eta Diseinua, Kirol Ikasketak eta Ikasketak Artistikoetako goi-mailako gainontzeko ikasketak barne hartzen dituzte. Europa mailako azken datuak 2008/2009koak dira.

EINEko datuen arabera, EAEn 2010ean 18tik 24ra bitarteko gazteen %12,6k utzi zituen ikasketak behar baino lehen, hau da, ez zuten Bigarren Hezkuntzako 2. etapa amaitu eta ez zuten inolako hezkuntza-prestakuntzarik jarraitzen, hots, derrigorrezko hezkuntzak eskaintzen duen titulazioa besterik ez zuten. Tasa hori gutxitzen joan da azken urteetan -Europa mailan ere antzematen den joera- eta Espainiako batez bestekotik (%28,4) nabarmenki urruntzen da, Europar Batasuneko 27 herrialdeetatik hirugarren tasarik altuena baitu (Europar Batasuneko batez bestekoa %14,1koa da).

Zehazki mutilek uzten dituzte neurri handiago batean euren ikasketak behar baino lehenago, hala ere, tasa hori nabarmenki jaitsi da azken urteetan, ikasketak goizegi uzten dituzten nesken proportzioak gora egin duen bitartean⁵⁴.

EAEko balioak oso onak diren arren beste herrialdeekin alderatuz eskolatzetasei edo ikasketak goizegi uzteari dagokionez, ezinbestekoa dirudi ildo horretan ahalegina mantentzea ongizate-maila altuagoak lortzeko eta pobrezia-tasak mantentzeko etorkizuneko ongizate-kotak bermatzeko aldera.

20. GRAFIKOA. Ikasketak behar baino lehenago utzi dituzten 18 eta 24 urte bitarteko herritarren % (ikasketak goizegi utzi izanaren tasa). EAE, Espainia eta Europako bilakaera 2004-2010 (48. ADIERAZLEA)



Iturria: *Hezkuntzako Adierazleen Euskal Sistema*. ISEI-IVEI. Eusko Jaurlaritzako Irakats Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea. Jatorrizko iturria EIN.

Oharra: EAEko datuek EINEk garatutako *Biztanleria Aktiboaren Inkesta* (BAI) dute erreferentziatzat, baina Euskadirako eta adin tarte horretarako (18-24 urte) lagina txikia denez arretaz aztertu behar da. Eustatek *Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta*ren datuen bidez eta lagin handiagoarekin adierazlearekiko gerturatzea burutu du eta 2010eko balioa % 10,8 ingurukoa izan zitekeela zenbatetsi du.

Ikerlan ezberdinetan garatutako azterketaren arabera, maila sozioekonomikoa ere eskola uztean eragina duen hezkuntza desberdintasuneko faktore bat da. Antzeman izan denez, baliabide ekonomiko eta kultura gutxiagoko ikasleak beranduago sartzen dira eta lehenago uzten dute hezkuntza sistema. Hezkuntza ibilbidea ere luzatu egiten da gurasoen hezkuntza maila altuagoa denean⁵⁵.

*Informe sobre la pobreza infantil a Catalunya*⁵⁶ azterlanak ohartarazten duen moduan, kontuan hartu beharra dago baliabide ekonomiko gutxiago dituzten familietan lan egiteko adina duten seme-alabak diru-sarrera iturri garrantzitsua direla, beraz, gizarte-egoera ahuleko familietako gazteek ikasketak behar baino lehenago uzteko aukera handiagoa dute, lan-merkatuan sartze aldera.

18 eta 24 urte bitarteko gazteen %12,6k derrigorrezko hezkuntzak eskaintzen duen titulazioa besterik ez du. Arriskua handiagoa da gizarte-egoera ahuleko familietako gazteen artean.


Uneko krisi egoera kontuan hartuta, hala ere, ikasketak behar baino lehenago uzten dituzten pertsonen langabezia izango dute helmuga gero eta gehiagotan. 2012an, EAEn 16 eta 19 urte bitarteko biztanleria aktiboaren % 3 langabezian dago. Ehuneko 2008an erregistratutakoa baino baxuagoa bada ere, zertxobait gora egin du 2010. urtearekin alderatuta⁵⁷. Europa mailan

haurren pobrezia eta herritar gazteen langabezia-tasa altuaren artean antzemandako harremana kontuan hartzen badugu⁵⁸, arreta berezia eskaini behar zaio tasa horren usteko igoera batek EAEko haurren pobrezia gainean izan dezakeen eraginari.

Pobrezia eta hezkuntza sistemaren arteko harremana aztertzerakoan, ikasleen gaitasun garapena ere faktore garrantzitsua da. ELGAK burututako *PISA Nazioarteko Txostena*⁵⁹ bezalako azterlanek herrialde ezberdinen hezkuntza emaitzen berri ematen dute hainbat funtsezko gaitasunetan ikasleen balorazioa eginez.

Horietako bat, irakurtzeko gaitasuna, erreferentzia gisa hartuta⁶⁰, Europa mailan euskal hezkuntza sistemak kokaleku egokia duela antzematen da. 2009an PISA proba egin zuten ikasleen % 15,1 errendimendu-maila desagokietan zegoen irakurmeneko proban. Zifra hori 2020rako zehaztutako Europako helburuaren parean kokatzen da, maila desagokietan dauden ikasleek % 15 ez gainditzea xedatu baitzen.

21. GRAFIKOA: PISaren irakurketa proban errendimendu-maila desagokia izandako 15 urteko ikasleen %. EAE, Espainia eta ELGAko bilakaera 2003-2009 (49. ADIERAZLEA)



Iturria: *PISA 2009 Txostena*. ISEI-IVEI. Eusko Jaurlaritzako Irakats Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea.

Ikasle desagokien ehunekoa murriztuz joan da azken urteetan eta EAEko emaitza ELGAko (% 19,8) edo Espainiako (% 19,6) batez bestekoa baino hobea da, hala ere, maila desagokiko ikasleen % 10 gainditzen ez duten herrialdeetatik urrun dago (Shanghai-Txina, Korea, Finlandia, etab.).

Txosten horretako datuek ez dute soilik ikasleen gaitasun berri ematen, emaitzetan eragina duten hainbat faktore identifikatzeko aukera ere eskaintzen dute. Belaunaldi-igorpena faktore horietako bat da, izan ere, aitaren edo amaren hezkuntza maila zenbat eta altuagoa izan are hobea da ikasleen irakurmen probetan lortutako puntuazioa. Gainera, familien eta hezkuntza zentroen inguru sozial, ekonomiko eta kulturalak emaitzetan eta oinarrizko gaitasun eskuratzeko-mailan eragina duela egiaztatzen da⁶¹.

Osasuna:

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak 24. artikuluan zera xedatzen du "Haurrak ahalik eta osasun-mailarik onena izateko eta gaixotasunak tratatzeko eta errehabilitaziorako zerbitzuak jasotzeko eskubidea du. Estatu kideak saiatuko dira haur guztiak osasun zerbitzu horiek jasotzeko eskubidea dutela bermatzeaz"⁶².

Gutxienez 2 egunetan behin proteinak dituen janariren bat izateko aukera ez duten familien ehunekoak gora egin du.

Hezkuntza sistemarekin gertatzen den moduan, osasunean egindako inbertsioa ezinbestekoa da herrialde baten garapena neurtu eta Hitzarmenak zehaztutako itxaropenak betetze aldera.

EAEk 2009an Barne Produktu Gordinaren ia %9 osasun arloko gastuetara bideratu zuen eta ehuneko hori, gutxienez egun arte, pixkanaka handituz joan da. Aldea oso handia ez bada ere, EAEn BPGd-ren gaineko ratioa Espainiak urte horretan bertan egindako gastua baino zertxobait baxuagoa da. Frantzia -erreferentziako inkestan aztertutako herrialdeen artean ratorik altuena duen herrialdea- egindako inbertsioarekin alderatuta, EAEkoa 3 portzentaje-puntu txikiagoa da.

Herritar bakoitzeko osasunean egindako gastu guztia ere gorantz joan da 2009ra arte. Urte hartan bi urte lehenago baino 385 € gehiago bideratu ziren pertsona bakoitzeko. Herritar bakoitzeko gastu hori estatu mailakoa baino zertxobait altuagoa da baina, besteak beste, Danimarkakoa -Europa mailan tasarik altuena duen herrialdea- baino baxuagoa.

Bi adierazle horien erreferentziako iturrien eguneratzeari dagokionez izandako mugak direla-eta, ezinbestekoa izango da datoen urteetan datuen bilakaera aztertzen jarraitzea aurrekontuetako ustezko murrizketen eragina argiago antzeman ahal izateko.

10. TAULA Osasuneko gastuak eragindako BPGd-ren % eta biztanle bakoitzeko osasuneko gastua guztira (€). EAEko bilakaera 2003-2009 eta estatu eta Europa mailako parekatzea 2009an.

EAEko lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua	Aurreko urteetako datuen seriearen bilakaera			Espainia	Espainiako herrialderen bat
		2007	2005	2003		
	2009				2009	2009
<i>50. ADIERAZLEA. Osasuneko gastuak eragindako BPGd-ren %</i>	8,78	7,14	6,97	6,94	9,5	11,8 (Frantzia)
<i>51. ADIERAZLEA. Biztanle bakoitzeko osasuneko gastua guztira (€)</i>	2.602€	2.217€	1.893€	1.634€	3.067 US\$	4.348 US\$ (Danimarka)

Iturria: *Osasunaren kontua eta ECO-SALUD ELGA 2011*. EUSTAT.


Oharra: Iturri honek ez du Europa guztiko daturik eskaintzen, bai ordea herrialde bakoitzekoak. Adierazle bakoitzean Europa mailan baliorik altuena duten herrialdeak aukeratzea erabaki da.

Alor honetan dagoeneko ditugun datu gutxietako batek azaltzen du uneko krisia herritarren elikatze jokabideetan eragina izaten ari dela. *Bizi-kondizioen Inkestatik* hartutako datuen arabera, 2009an euskal familien laurdenak (% 26) elikaduran murrizketa ekonomikoak egin zituela adierazi zuen⁶³.

Datu eguneraturik ez dugun arren, pentsa dezakegu data horretatik aurrera -krisia garbiago antzematen hasten den unearrekin bat egiten duena- zifra nabarmenki handitu ahal izan da eta, beraz, baita familia horietan bizi diren eta horren eragina pairatzen duten haurren kopurua ere.

2012ko beste iturri estatistikoek % 7,7an kokatzen dute elikadura arazo larriak edo oso larriak dituzten familietako herritarren ehunekoa. Errealitate horrek 2008an, krisiaren hasieran, herritarren % 5,7ri bakarrik eragiten zion.

22. GRAFIKOA. Elikadura arazoak (larriak edo oso larriak) dituzten familietan bizi diren herritarren %. EAEko bilakaera 2000-2012 (52. ADIERAZLEA)



Iturria: *Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritzia.*

Pobrezia-arriskuan dauden familietako herritarrak bakarrik kontuan hartzen baditugu, elikadura arazo larrien eragina pairatzen duten pertsonen ehunekoa % 44,8raino igotzen da⁶⁴. Eta gogora dezakegu 15 urtetik beherako adingabeek mantentze-pobreziako arriskuan dauden familietan bizi diren lau pertsonetako ia bat direla (guztien % 22,7)⁶⁵.

Gainera, herritarren % 3,6 behintzat bi egunetan behin proteinak dituen janariaren bat ordaindu ezin duten familietan bizi da, 2008an erregistratutakoa (% 2,3) baino ehuneko altuagoa eta 2004ko mailetarako atzerapena eragiten duena.

11. TAULA Behintzat bi egunetan behin proteinak dituen janariaren bat ordaintzeko gai ez diren familietako herritarren %. EAE, Espainia eta Europako bilakaera 2000-2012 (53. ADIERAZLEA)


Lurralde eremua	Eskura dagoen azken datua	Aurreko urteetako datuen seriearen bilakaera	
	2012	2008	2004
EAE	3,6	2,3	3,4
Espainia	3	2	2,5
EB	9	9	-

Iturria: EAEko datuak *Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestatik* hartu dira. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritzia. Estatuko eta Europako datuak *Bizi-kondizioen Inkestatik* hartu dira. EIN eta Eurostat.

Oharra: Espainia eta Europarako eskura dauden azken datuak 2009koak eta orientagarriak dira, izan ere, haragia, oilaskoa edo arraina gutxienez bi egunetan behin ordaindu ezin duten pertsoneri buruzkoak dira.

Ikerlan askok hezkuntza-mailaren eta osasunaren arteko lotura aipatu izan dute. Hezkuntzak osasunaren gainean dituen onurak, informazio gehiago eskuratzeko aukera eta horren erabilera hobea kontuan hartuta, hezkuntzak osasun ohiturei eta osasun sistema erabiltzeari buruzko erabakietan duen eraginarekin lotzen dira⁶⁶.

23. GRAFIKOA. Euren osasuna bikaintzat edo oso ontzat jotzen duten 16tik 24ra bitarteko herritarren %. EAEko bilakaera 2002-2007 (54. ADIERAZLEA)



■ 59. ADIERAZLEA Euren osasuna bikaintzat edo oso ontzat jotzen duten 16tik 24ra bitarteko herritarren %.

2007ko datuen arabera, 16 eta 24 urte bitarteko herritarren % 56,7 bikaintzat edo oso ontzat jotzen zuen bere osasuna, duela urte batzuk adin tarte horretarako erregistratutakoa baino balorazio positiboagoa eta, espero daitekeen moduan, beste adin tarte batzuen baino nahiko optimistagoa -batez beste, EAEn, euren osasuna bikaintzat edo oso ontzat jotzen duten pertsonen proportzioa % 29,5 ingurukoa da⁶⁷.

Iturria: *Osasunaren Inkesta. Osasun Saila* eta EUSTAT

Maila sozioekonomiko altuagoko⁶⁸ taldeetako pertsonen osasunaren inguruko iritzi hobea izaten ohi dute, % 39,9ak bikaintzat edo oso ontzat jotzen du eta talde sozioekonomiko baxuagoan⁶⁹ sailkatutako pertsonen % 25ak besterik ez du iritzi horrekin bat egiten⁷⁰.

Europa mailan ere antzematen da ongizatearen garapen handiagoa duten herrialdeetan osasun egoeraren inguruko iritzi ezkorra zein pobrezia-tasak baxuagoak direla. Beraz, herri nordikoeke dute osasunarekiko iritzirik onena eta ekialdeko herrialdeak dira maiztasun gehienarekin euren osasuna txartzat jotzen dutenak.

Aisia eta parte-hartzea:

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak zera dio 31. artikuluan “Neska-mutil guztiek atsedena hartzeko eta aisialdirako, jolasteko eta beren adinari dagozkion jolas jardueretan parte hartzeko eskubidea dute, baita kultura eta arte jardueretan parte hartzeko eskubidea ere”⁷¹.

Aisialdiko jarduerak garrantzi berezia dute haurren garapen integralean.

2 pertsonatik 3k euren aisialdiko gastuak murriztu behar izan dituzten familietan bizi dira eta familien % 13 baino gehiagok ez ditu inolaz ere bere aisialdiko beharrak asetzen.


Eskolatzeko eskubideen hazkundera eta unibertsalizazioaren ondorioz, haurren arteko hezkuntza ezberdintasunak gaur egun aisialdiaren erabilerarekin -hezkuntza ez formaleko eremu gisa ulertuta- eta aisialdiko baliabideak eskuratzearekin lotzen dira gehien bat.

Uneko krisia herritarren aisialdirako aukeretan eragina izaten ari dela dirudi, are gehiago pobrezia-arriskuan dauden familiak direnean.

2012an herritarren % 21,6 euren aisialdiko gastuak murriztu dituzten familietan bizi zen, hau da, 2008an krisiaren hasieran (% 10,1) baino pertsona kopuru bikoitza eta 1996tik erregistratutakoak baino tasa nabarmenki altuagoa, ia 1986ko errealitatearekin bat eginez, urte hartan herritarren % 27k pairatu baitzuen aisialdiko gastuen murrizketa. Pobrezia-arriskuan dauden familiak kontuan hartzen badira, 2012an egoera horren eragina pairatutako herritarren proportzioa ia % 79,7raino igotzen da⁷².

Gainera, % 13,3 aisialdiko beharrak estaltzeko arazoak dituzten familietan bizi da, izan ere, ez dute inolaz ere behar hori estaltzen, 2008an, berriz, errealitate horrek % 10,1i eragiten zion.

24. GRAFIKOA. Aisialdiko gastuak murriztu dituzten eta aisialdiko beharrak estaltzeko arazoak dituzten familietako herritarren %. EAEko bilakaera 1986-2012




Iturria: Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkesta. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza.

Aipatu beharra dago pobrezia-arriskuan dauden familietako adingabeak arazo horiek gehien pairatzen dituztenak direla eta, ondorioz, neurri handiago batean murrizten zaizkie aisialdirako aukerak. Zehazki, arriskuan dauden familia horietako kide diren herritarren %60,1ak eraginak pairatzen ditu eta aisialdiko beharren gastuak estaltzeko arazo larriak ditu⁷³

Ez dirudi familiek oporrei dagokienez egindako murrizketak nabarmenki areagotu direnik azken urteetan, hala ere, azken urtean arazo ekonomikoengatik oporrik izan ez duten familietan bizi diren herritarren tasa (% 21,1) 2008an baino 0,8 altuagoa da.

25. GRAFIKOA. Azken urtean arazo ekonomikoengatik oporrik izan ez duten familietan bizi diren herritarren %. EAE eta Espainiako bilakaera 1996-2012 (57. ADIERAZLEA)



Iturria: EAEko datuak Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestatik hartu dira. 2012. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila. Eusko Jaurlaritza. Espainiako eta Europako datuak EInetik hartu dira, Bizi-baldintzei buruzko Inkestatik.


Oharra: Espainiari buruz eskura dauden azken datuak 2011koak dira eta Europakoak 2008koak. Europa eta Espainiako datuek gutxienez urtean astebete oporretan joateko aukera ez duten herritarren ehunekoa dute hizpide.

Kasu honetan ere kontuan hartu beharra dago pobrezia-arriskuan dauden familietako kide diren haurrek murrizketa mota horren eraginik handiena pairatzen dutela, izan ere, familia mota horietako pertsonen % 67,1ak ezin izan du oporrik izan azken urtean⁷⁴.

Familien ahalmen ekonomiko eta kapital kulturalarekin lotzen den beste adierazle bat informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbidearen berri ematen duena da. 2012an 6 eta 14 urte bitarteko herritarren % 90,53k etxean Internet dauka, azken urteetan nabarmenki handituz joan den ehunekoa da eta teknologia horietarako irisgarritasuneko kota historikoak lortu dira.

Adin tarte horretarako konparazio-daturik ez dugunez, 16 eta 74 urte bitarteko kideak dituzten familiei buruzko datuak oinarri hartuta esan dezakegu EAEko tasa (% 65,8 2011ko erreferentzia zehatz horretarako) Espainiako batez bestekotik (% 64) gora kokatzen dela, baina 27en Europar Batasuneko batez bestekotik (% 73) urrun⁷⁵.

26. GRAFIKOA. Etxean Internet duten 6 eta 14 urte bitarteko herritarren %. EAEko bilakaera 2004-2012 (58. ADIERAZLEA)



Iturria: *Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta* -ESIF. EUSTAT

Oharra: Erreferentzia gisa 2011ko urtarrilaren 1ean 6 eta 14 urte bitartean zeuden herritar guztiak hartu dira 2012ko ehunekoa kalkulatzeko.

Era berean, antzeman denez, instrukzio maila altuagoko pertsonen sarbide indize altuagoak dituzte. Horrela bada, goi-mailako ikasketak dituzten 16 eta 74 urte bitarteko herritarren % 87,5ak etxean Interneterako sarbidea dauka, lehen mailako ikasketak dituzten herritarren % 32,7aren aurrean⁷⁶. Halaber, diru-sarrera maila altuagoak dituzten familiek etxean Interneterako sarbide-tasa altuagoak dituzte⁷⁷.

Azkenik, interesgarria da gogoetan berriro ere gaineratzea hezkuntzan inbertitzeak duen garrantzi handiaren berri ematen duten ikerketen emaitzak, bizitzaren beste arloetan bizikalitatearen hobekuntzarekin lotura baitute. Ikerlan horiek azaltzen dute hezkuntza-maila altuago batek, aisialdia areagotzen ez badu ere, eskura dauden aisialdiko aukeren balorazio ezberdina eragiten du. Ondorioz, hezkuntza-maila altuagoko pertsonen euren aisialdia ase dezaketen aukera-sorta handiagoa dute eta horri esker, praktikan, irakurketa, musika, artea edota bidaiak bezalako jardueretan denbora ematean gehiago goza dezakete, beraz, hezkuntza handiagoa duten pertsonen jarduera horietara bideratzen duten denbora ere handiagoa izan ohi da.⁷⁸



Bibliografia

Bibliografia orokorra

ARARTEKOA. *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak. Arartekoaren txosten berezia Eusko Legebiltzarrarentzat*. Vitoria-Gasteiz: Arartekoa, 2011.

BELLO, A. (Koord.). *El bienestar infantil desde el punto de vista de los niños*. Madrid: UNICEF Espainia, 2012.

BELLO, A., CASAS, F. (Koord.), GONZÁLEZ, M., ALIGUÉ, M., BERTRÁN, I., MONTSERRAT, C., NAVARRO, D., GONZÁLEZ-BUENO, G., I BREDOW, M. VON. *Calidad de vida y bienestar infantil subjetivo en España. ¿Qué afecta al bienestar de niños y niñas españoles de 1º de ESO?* Madrid: UNICEF Espainia, 2012.

EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. *Gizarteratze Aktiboko III. Euskal Plana 2012-2016*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Argitalpenen Zerbitzu Nagusia, 2012

EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. *Euskal Autonomia Erkidegoan Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana (2011-2015)*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila, 2011.

EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. PLANGINTZA ETA ENPLEGU SAILBURUORDETZA. ZERBITZUEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARITZA. *Gizarte Premiei buruzko Inkesta 2010. Gizarte Zerbitzuen Eskariaren Estatistika (GZEE). Emaitei buruzko Txosten Orokorra*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Lan eta Gizarte Gaietarako Saila, 2011.

EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. PLANGINTZA ETA ENPLEGU SAILBURUORDETZA. ZERBITZUEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARITZA. *Pobrezari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2012ko Inkesta. Emaiza Nagusiak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza, 2012.

EUSKO JAURLARITZA. ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA. GIZARTE GAIETARAKO SAILBURUORDETZA. GIZARTE GAIETAKO ZUZENDARITZA. *EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2011-2014*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietarako Saila, 2011.

EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. ZERBITZUEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARITZA. *Pobrezari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2008ko Inkesta*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza, 2008.

EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. ZERBITZUEN ETA ARAUBIDE JURIDIKOAREN ZUZENDARITZA. *Pobrezari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko 2004ko Inkesta. Txosten Orokorra*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila, Zerbitzuen eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritza, 2005.



EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA. *2010-2013 Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, 2010.

EUSKO JAURLARITZA. *Egoera-Diagnostikoa Euskadi 2020an jasagarria izan dadin*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. EcoEuskadiko Idazkaritza Teknikoa, 2011.

GONZÁLEZ-BUENO, G.; BELLO, A.; ARIAS, M. *La Infancia en España 2012-2013: El impacto de la crisis en los niños*. Madrid: UNICEF Espainia, 2012.

HEZKUNTZA BERRIKUNTZA-IFFIE. *Los Costes del abandono escolar prematuro. Una aproximación a las pérdidas monetarias y no monetarias causadas por el abandono prematuro en España*. Madrid: Idazkaritza Orokor Teknikoa, 2011.

UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDAE (ISEI-IVEI). *PISA 2009 Euskadi. 2. EBALUAZIO TXOSTENA: Aldagaien azterketa eta ikasleen irakurketako emaitzan duten eragina*. Bilbo: ISEI-IVEI, 2011.

UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKAS-SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDAE (ISEI-IVEI). *Rs9.1. Irakurketa-gaitasuna 15 urterekin PISA eskalan*. Bilbo: ISEI-IVEI, 2011.

HEZKUNTZA MINISTERIOA. HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO ESTATU IDAZKARITZA. *PISA 2009. Programa para la Evaluación Internacional de los Alumnos. ELGA. INFORME ESPAÑOL*. Madrid: Hezkuntza Ministerioa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Estatu Idazkaritza, 2010.

HEZKUNTZA MINISTERIOA. HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO ESTATU IDAZKARITZA. Irakasleen prestakuntzarako, Ikerketarako eta Hezkuntza Berrikuntzarako Erakundea-IFFIE. *Los Costes del abandono escolar prematuro. Una aproximación a las pérdidas monetarias y no monetarias causadas por el abandono prematuro en España*. Madrid: Idazkaritza Orokor Teknikoa, 2011.

OBSERVATORIO SOCIAL DE ESPAÑA. NAVARRO, Vicent (Zuz.). *El impacto de la crisis en las familias y en la infancia*. Bartzelona: Editorial Planeta S.A., 2012.

